

LIBURU ETA EMAKUME APARTAK



Martxoaren 7an Josune Muñoz etorri zen gurera liburu eta emakume apartei buruz hitzegitera. Josune Bilbon jaio zen, 1967.urtean. Euskal filologoa da, Genero ikerketetan aditua. 2004an SKOLASTIKA *Literatur zerbitzuak* sortu zuen Bilbon, emakumeen literaturan espezializaturiko kulturgunea. SKOLASTIKAn hainbat tailer eta

ekimen kultural eskaintzen dira, betiere emakumeen sorkuntza ardatz hartuta. Gainera, badu liburutegi espezializatua eta komikiteka ere, 5.000 aletik gorakoa. SAREINAK taldeko kidea da; egitasmo horrek literatura, feminismoa eta euskara uztartzen ditu.



Josunek bere burua aurkeztu ondoren, Afrodita poema bitxia errezitatu zuen. Horrek hasiera eman zion bere hitzaldiari. Pantaila aurrean, emakumeek idatzitako literaturaren bidaia hasi zen. Liburu baten azala agertu ahala, Josunek bere idazleak izan zituen oztopoak eta zailtasunak komentatzen zituen. Safo, Sherezade, Murakami Shikibu, Pizaneko Christine, Santa Teresa de Jesús, Mary Shelley, Jane Austen, Harriet Beecher Stowe, Agatha Christie, J.K. Rowling, Marjane Satrapi, Toti Martinez de Lecea, Dolores Redondo, Mariasun Landa... aipatutako batzuk izan ziren. Bidaia interesgarria Josunerekin egindakoa. Eskertzeko ere izan zen berak luzatutako emakume aparten liburu aukeraketaren zerrenda.



Gonbidapen ona liburu eta emakume horiek ezagutu nahi badituzu. Hona hemen URL-a zerrenda hori eskuratzeko:

<https://hezkidetzafraijuan.wordpress.com/2017/03/07/liburu-eta-emakume-apartak/>